


INFLAZIOA

KPIa hamarren bat jaitsi da, argindarra garestitu den arren

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa




INEk argitaratu duen informazioaren arabera, EAEko KPI indizea %2,1ean kokatu zen irailean, aurreko datua baino hamarren bat beherago eta Estatuaren emaitza baino bi hamarren gutxiago. Urte arteko jaitsiera txikiaren arrazoa landu gabeko elikagaien beheranzko bilakaera da, argindarraren garestitze bizia konpentsatu zutena. Izan ere, lehenengoak abuztuko %4,3tik irailiko %3,0ra igaro ziren eta argindarraren igoera %10etik gorakoa izan da.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	2,1	2,1
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,4	0,6
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	7,9	1,4
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	3,0	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	11,6	1,2

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Azpiko inflazioak ez zuen aldaketarik izan eta %0,9an jarraitu zuen, aurreko hilekoen balioetatik oso hurbil. Horrek iradokitzen du oraindik ez dagoela presio inflaziogilerik. Aitzitik, hondar inflazioa, elikagai freskoak eta energia biltzen baititu, %7,9 hazi zen. Argindarraren eta, neurri txikiagoan, berogailutarako gasolioaren garestitzeak bereziki etxebizitza taldean (%5,6) izan zuen eragina, aurreko hilekoaren emaitzaren aldean zortzi hamarren gehitu zelako. Orobat, esanguratsua da garraio taldearen gorakada ere (%4,8), aurreko datuaren aldean jaitsi bazen ere, erregaiak aurreko urtean baino gutxiago garestitu zirelako. Portiera inflaziogilea erakusten duten beste talde batzuk edari alkoholodunak eta tabakoa (%2,7) eta komunikazioak (%2,8) dira. Kontrako zentzuan, aisia eta kultura taldea (%-1,9) 2017ko irailean baino merkeagoak ditu bere prezioak orain.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,1	2,3	2,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,7	2,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,7	2,1	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,0	-0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	5,6	5,3	3,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,2	0,4
Medikuntza	0,3	0,1	0,9
Garraioa	4,8	5,0	4,4
Komunikazioak	2,8	2,6	-1,2
Aisia eta kultura	-1,9	-1,0	0,7
Hezkuntza	1,1	1,0	-3,3
Jatetxeak eta hotelak	2,1	1,9	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,9	1,0	1,4

Iturria: INE eta Eurostat.